

## GOBERNU BATZARRA

2016. 04. 25

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko apirilaren hogeita bostean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1.- Aurreko akta onartzea.</li><li>2.-Sutani Elkartearekin ekarpen ekonomikoa.</li></ol>
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>3.-Rondilla 46an oztopo arkitektonikoak kentzeagatik dirulaguntza.</li></ol>
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>4.-Kontseilua: Dirulaguntza eta Hitzarmena.</li></ol>
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>5.- Herri Urrats: Dirulaguntza.</li><li>6.- Nafarroa Oinez: Dirulaguntza.</li><li>7.- Galtzaundi: 2016ko dirulaguntza.</li><li>8.- Ataria (TKT): 2016ko dirulaguntza.</li><li>9.- 28 Kanala (TK): Dirulaguntza.</li><li>10.- Kilometroak: Dirulaguntza.</li><li>11.-Eskolapioetako sarbide haunditzeko proiektua onartzea.</li><li>12.-Eskolapioetako sarbide haunditzeko obrak kotratatzeko baldintza plegua onartzea.</li><li>13.-Andia elkarteari dirulaguntza emateko erabakia baliogabetzea.</li><li>14.-Bidaiaren Txokoa: lokalaren zesioa.</li><li>15.- Aranzadi elkartearikiko hitzarmena.</li></ol>

**16.-Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

**17.- Auditoriaren plegua.**

**18.- Bases para la confeccion de una bolsa de trabajo de peones del Ayuntamiento.**

**19.-10/2016 eta 11/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

## **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko apirilaren 18an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Zutani Elkartearekin ekarpen ekonomikoa.**

Gobernu Batzarrak, 2016ko urtarrilaren 25ean, hitzez hitz onartu zuen: ““aurten Zutaniaren ordezkariari “Elikagaiaren bankuaren” programaren kudeaketa egin ahal izateko, 2.000 €.ko dirulaguntza aurreratzea, aurretik hitzarmena onartu eta sinatu ondoren””.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariak aurkeztu duen hitzarmen-proposamenak ezaugarri hauek ditu:

**1-** Hitzarmenaren kostua: 7.000 €.

**2-** Indarraldia: 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.

**3-**Finantziarioa: hitzarmena sinatzerakoan % 75 ordaintzea eta beste % 25a dirulaguntza justifikatzen dutenean.

**4-**Beste finantziario-iturriak:

**4-1-**Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du aipatutako kopurua aurten ordaintzeko, baina ohartarazten du ez diola bere ekintzen % 100 finantzatzeko gainontzeko urteetan.

**4-2-** Zutani elkarteak beste diru-iturri batzuk bilatu behar ditu 2016. urterako, baita hurrengo urteetarako ere.

**4-3-** Tolosako Udaleko Gizarte Politikako Departamentuak konpromisoa hartzen du Zutani elkarteari aholkatzeko eta hura orientatzeko, beste finantziario iturri batzuk bilatzeko eta Elkartearen proiektuak eta memoriak gauzatzeko.

Bestalde, Zutaniaren ordezkariekin adostuta dagoenez, eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Zutani Elkarteari 7.000 euroko dirulaguntza ematea 2016an.

**BIGARRENA**.- Onartutako dirulaguntzaren hitzarmen arautzailea onartzea.

**HIRUGARRENA**.- Zutani elkarteari adieraztea hitzarmenaren kostua kobratu aurretik, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari:

- \* Urteko ekintzen behin betiko memoria.
- \* Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- \* Fakturak.
- \* Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Zutani Elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

### **3.- Rondilla 46an oztopo arkitektonikoak kentzeagatik dirulaguntza.**

Ikusirik Tolosako Rondilla kalea 46 zenbakidun Jabe Erkidegoak igogailua jartzeko dirulaguntzen eskaera aurkeztu zuela, arautegiak eskatze dituen agiriekin batera.

Ikusirik babestutako obren ezaugarriak honakoak direla:

\* Obra mota: Oztopo arkitektonikoak kentzea.

\* Obren kostua: 32.450,05 euro.

\* Dirulaguntza: 1.200 euro. Obra babesturen kostuaren %10, 1.200 euroko mugarekin.

Vista la solicitud de ayudas a la instalación de ascensores presentada por la Comunidad de Propietarios de Rondilla kalea 46, acompañada por la documentación requerida por la normativa.

Visto que las características de las obras protegidas son las siguientes:

\* Tipo de obra: Eliminación de barreras arquitectónicas.

\* Coste Obras: 32.450,05 euros.

\* Ayuda económica: 1.200 euros 10% del costo de las obras protegidas con el tope establecido de 1.200 euros.

Ikusirik eskaerak betetzen dituela 2009ko uztailaren 7an Udalbatzak onartutako laguntza ekonomikoen arautegian aurrikusitako baldintzak.

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Visto que la solicitud cumple con los requisitos establecidos en la normativa aprobada por el Pleno de fecha 7 de julio de 2009.

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Rondilla kalea 46 jabe erkidegoari 1.200 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Dirulaguntzen ordainketa egitea, ondoren adierazten den bukaerako dokumentazioa justifikatu ondoren:

\*Obra bukaerako ziurtagiria, obren zuzendaria teknikoak izenpetuta.

\*Obren fakturak, likidazioaren zenbatekoarekin.

\*Igogailuaren bukaerako egoeraren argazkiak.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Erretengibeli eta interesatuei.

## **ACUERDA**

**PRIMERO.**- Conceder la subvención de 1.200 euros a la Comunidad de vecinos de Rondilla kalea 46.

**SEGUNDO.**- Proceder al abono de la subvención, una vez presentada la documentación que a continuación se detalla:

\* Certificado final de obra, suscrito por el Técnico Director de la obra.

\* Facturas finales de la obra, con expresión del importe de liquidación.

\* Fotografías del estado final del ascensor.

**TERCERO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención, Erretengibel y a los/as interesados/as.

#### **4.- Kontseilua: Dirulaguntza eta Hitzarmena.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 21ean, erabaki zuen Galtzaundi Euskara Taldearekin lankidetzako hitzarmen bat egitea, Tolosan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmo batzuk aurrera eramateko 2014etik 2017ra, biak barne.

Hitzarmen hura 2014ko martxoaren 10ean izenpetu zuten Tolosako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak.

Hitzarmenera itzuliz, hark dio Tolosako Udalak 54.000 euroko laguntza emango ziola Galtzaundiri 2014an, eta urtez urte, 2017a arte, KPIa igoko zaiola diru laguntza horri.

Bestetik, hitzarmenak berak dio Galtzaundi Euskara Taldeak urteko diru laguntzaren % 60 jasoko duela apirila baino lehen, eta gainontzekoa, % 40, laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztean.

Hori guztia kontuan hartuta, hau da, batetik, hitzarmenak dioena eta, bestetik, Galtzaundik Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordean aurkeztutako txostena (2016ko egitasmoa), Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea 54.000 euroko gastua dirulaguntza gisara emateko Galtzaundi Euskara Taldeari 2016 urtean, eta, era berean, kopuru horren % 60 aurreratzea Galtzaundiri, hitzarmenean jarritako baldintzen arabera.

**BIGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Euskara Zerbitzuari.

### **5.- Herri Urrats: Dirulaguntza.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Herri Urratsi 1.000 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

### **6.- Nafarroa Oinez: Dirulaguntza.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Nafarroa Oinezi 1.000 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

### **7.- Galtzaundi: 2016ko dirulaguntza.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak, 2014ko otsailaren 21ean, erabaki zuen Galtzaundi Euskara Taldearekin lankidetzako hitzarmen bat egitea, Tolosan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmo batzuk aurrera eramateko 2014etik 2017ra, biak barne.

Hitzarmen hura 2014ko martxoaren 10ean izenpetu zuten Tolosako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak.

Hitzarmenera itzuliz, hark dio Tolosako Udalak 54.000 euroko laguntza emango ziola Galtzaundiri 2014an, eta urtez urte, 2017a arte, KPIa igoko zaiola diru laguntza horri.

Bestetik, hitzarmenak berak dio Galtzaundi Euskara Taldeak urteko diru laguntzaren % 60 jasoko duela apirila baino lehen, eta gainontzekoa, % 40, laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztean.

Hori guztia kontuan hartuta, hau da, batetik, hitzarmenak dioena eta, bestetik, Galtzaundik Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordean aurkeztutako txostena (2016ko egitasmoa), Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea 54.000 euroko gastua dirulaguntza gisara emateko Galtzaundi Euskara Taldeari 2016 urtean, eta, era berean, kopuru horren % 60 aurreratzea Galtzaundiri, hitzarmenean jarritako baldintzen arabera.

**BIGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitetzari eta Euskara Zerbitzuari.

### **8.- Ataria (TKT): 2016ko dirulaguntza.**

Ataria Tolosaldeko Komunikazio taldea, S.M., sozietateak 2016 urteko egitasmoa aurkeztu du.

Tolosako Udalak, euskararen normalizazioa lortzeko, azken hiru hamarkadetan berariazko politikak landu eta egikaritu ditu Tolosan, eta politika horiek gizartetik bertatik sortutako ekimenekin eta beste erakunde publikoetatik landutako egitasmoekin uztartzen ahalegindu da.

Azken bi hamarkadotan tokiko komunikabideen esparrua izan da euskarak irabazi duen espazioetako bat.

Era berean, esan behar da euskaraz ari den hedabideak hizkuntzak dituen mugak dituela. Hain zuzen ere, euskara ez dago egoera normalean; eta, ondorioz, nekez lehia daitezke euskarazko hedabideak hizkuntza indartsuagokoekin, pareko baldintzarik gabe.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa kontuan harturik, Tolosako Udalak hasiera-hasieratik diruz lagundu ditu Tolosaldeko euskarazko tokiko komunikabideak, idatzizkoak zein ikus-entzunezkoak. Ezinbesteko tresna bezala ikusi ditu bai euskararen normalizazioa indartzeko, baita herritarrei tokiko informazio multimedia eskaintzeko ere. Are gehiago, aurreko legegintzaldiaren hasieran, eskualdeko beste udalekin batera, orduan existitzen ziren lau proiektu komunikatiboak elkar lanera eta konbergentziara bultzatzeko ekimen bat abiatu zuen.

Konbergentziarako prozesu horren ondorioz 2011n lau proiektu komunikatibo zirenak bi dira 2016ean: TKT komunikazio-plataforma multimedia papera, internet eta irratia jorratzen dituen *Ataria* markarekin eta Tolosa Komunikabideak, 28 Kanala markarekin, bereziki telebista egiten duena. Bestalde, 2014ko azaroaren 26an bi proiektu horiek elkarlan operatiborako hitzarmen bat sinatu zuten sinergiak indartzeko eta baliabideak elkarbanatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Tolosako Udalak, 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen diruz laguntzeko hiru urterako hitzarmena formalizatzea *Ataria* Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearekin honako era honetan:

2015ean 78.000 €-ko gastua onartzea 0900 481.01.33510 diru-partidatik; 2016an, 84.000 €-ko kreditu-konpromisoa; eta 2017an, 90.000 €-koa.

Erabaki haren ildotik Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 18an erabaki zuen onartzea *Ataria* Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearekin formalizatu beharreko hitzarmena.

Ondorioz, aintzat harturik aurrekari guztiak eta, era berean, *Ataria* Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M., sozietatearekin egindako hitzarmena, 2015eko otsailaren 24an Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktaminarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.arentzat 84.000 €-ko gastua 0900 481.01.33510 diru-partidatik, Udalak 2016 urtean dirulaguntza gisara eman diezaion, sinatutako hitzarmenaren arabera.

**BIGARRENA**.- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Euskara Zerbitzuari.

### **9.- 28 Kanala (TK): Dirulaguntza.**

Tolosako Udalak, euskararen normalizazioa lortzeko, azken hiru hamarkadetan berriazko politikak landu eta egikaritu ditu Tolosan, eta politika horiek gizartetik bertatik sortutako ekimenekin eta beste erakunde publikoetatik landutako egitasmoekin uztatzen ahalegindu da.

Azken bi hamarkadotan tokiko komunikabideen esparrua izan da euskarak irabazi duen espazioetako bat.

Era berean, esan behar da euskaraz ari den hedabideak hizkuntzak dituen mugak dituela. Hain zuzen ere, euskara ez dago egoera normalean; eta, ondorioz, nekez lehia daitezke euskarazko hedabideak hizkuntza indartsuagokoekin, pareko baldintzarik gabe.

Hortaz, ezin da euskarazko hedabide baten biziraupena jarri erabateko auto-finantziazioaren

baldintzapean. Halaber, onartuta dago gizartean, galdutako oreka ez dela berreskuratzen berdintasuna erabilia.

Aurreko paragrafoan aipatutako izpiritua kontuan harturik, Tolosako Udalak hasiera-hasieratik diruz lagundu ditu Tolosaldeko euskarazko tokiko komunikabideak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Ezinbesteko tresna bezala ikusi ditu bai euskararen normalizazioa indartzeko baita herritarrei tokiko informazio multimedia eskaintzeko ere. Are gehiago, legegintzaldi honen hasieran, eskualdeko beste udalekin batera, orduan existitzen ziren lau proiektu komunikatiboak elkar lanera eta konbergentziara bultzatzeko ekimen bat abiatu zuen.

Konbergentziarako prozesu horren ondorioz 2011n lau proiektu komunikatibo zirenak bi dira 2016an: TKT komunikazio-plataforma multimedia papera, internet eta irratia jorratzen dituen *Ataria* markarekin eta Tolosa Komunikabideak, *28 kanala* markarekin, bereziki telebista egiten duena. Bestalde, 2014ko azaroaren 26an bi proiektu horiek elkarlan operatiborako hitzarmen bat sinatu zuten sinergiak indartzeko eta baliabideak elkarbanatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Tolosako Udalak, 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen diruz laguntzeko hiru urterako hitzarmena egitea *28 Kanala Tolosa Komunikabideak, S.L.*, sozietatearekin honako era honetan:

2015ean 36.000 €-ko gastua onartzea 0900 481.01.33510 diru-partidatik. Halaber, 2016an eta 2017an 36.000na €-ko kreditu-konpromisoa esleitzea.

Ondorioz, aintzat harturik aurrekari guztiak eta 2015eko otsailaren 24an Osoko Bilkuran hartutako erabakia, eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Onartzea 36.000 €-ko gastua Tolosa Komunikabideak S.L.rentzat 0900 481.01.33510 diru-partidatik, Udalak 2015 urtean diru laguntza gisara eman diezaion, sinatutako hitzarmenaren arabera.

**BIGARRENA**.- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Euskara Zerbitzuari.

### **10.- Kilometroak: Dirulaguntza.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Kilometroari 1.000 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

### **11.- Eskolapioetako sarbide haunditzeko proiektua onartzea.**

Tolosako Udalak 2015eko azaroaren 11n Girder Ingenieros, SLP, ingeniartzari “Eskolapioak ikastexera iristeko aukeren azterketa” idaztea enkargatu zion.

Bi mila hamaseiko urtarrilaren 4an, aldiz, “Tolosako bidebieta auzoan Eskolapioetako igoera zabaltzeko exekuzio proiektua”, idaztea esleitu zion, lehen aipaturiko aurreproiektuan jasotariko aukeretako bat garatzeko.

Bi mila eta hamaseiko apirilaren 11, exekuzio proiektua udaletxean aurkeztu zen, dagozkion tramiteak egiteko.

Proiektuan jasotariko obrek Eskolapioetako igoeraren 130 metrotako luzera batean dute afekzioa.

Proiektua lantzeko garaian jarraitu diren helburuak honako hauek izan dira:

- \* Mugikortasun eta segurtasun baldintzak hobetzea.
- \* 3 metrotako bi errei izatea.
- \* 2,1 metrotako espaloi bat izatea.
- \* Led sisteman oinarritutako argiteria bat jartzea.

Bidebieta auzoan aparkalekuak egiteko aurrekontua honakoa da:

* Kontrata aurrekontua.....	225.096,18 €
*BEZ.....	47.270,20 €
* GUZTIRA.....	272.366,38 €

Proiektua bera eta Udal arkitektoak, apirilaren 14an, idatzitako txostena ikusita, eta, txosten horretan proposatzen denarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea, GIRDER INGENIEROS, S.L.P. enpresako Ubide eta Portuetako ingeniari Miguel Angel Oero Barreiro eta Elena Puldain Huartek, 2016ko martxoan, idatzitako “Eskolapioetako sarbidea handitzeko” proiektua, ondorengo baldintzekin:

### **Bidebieta, 1-A Aiestaranenea etxea:**

Etxe honen balkoia bidearen gain-gainean gelditzen da eta autobusetatik babesteko galtzarako tartea handitu egin da. Baino, etxe horretako jabeek eskatu dute etxearen ertzaren parean ere galtzadarekiko tartea handitzeko, iskinean 0,50 metro lortu ahal izateko.

Kontuan izanda obra udako oporraldietan egin nahi dela eta proiektua aldatzeko denborarik ez dagoela, obraren exekuzioan egingo dira eskaera hori betetzeko egin beharreko aldaketak.

### **Mugikortasuna eta trafikoa:**

Proiektuko 10. planoan seinalizazioa dela eta egiten diren aurreikuspenez gain udaltzaingoak egin dituen ekarpenak jaso beharko dira, gehienezko abiadurari buruzkoak gehienak.

### **Ur hornidura:**

Ur Zerbitzuak-eko antolakuntza buruak bere txostenean jasotako baldintzak, presio altuko hodiari dagozkionak, betetzeko obran zehar hartu beharreko neurriak hartu beharko dira. Ondoren zehazten direnak, hain zuzen ere:

- \* Edozein akabera eta hodiaren goiko partearen artean gutxienezko distantzia 1,2 metrotako izan behar du.
- \* Galtzadan hodia hormigoi armatuzko zolata batez babestuko da.
- \* Hodiaren gainean eraiki behar den hormak ezin ditu bere kargak hodira transmititu inolaz ere.

### **Saneamendua:**

Irizpideak ezarri et erabakiak hartzeko garaian Ur Zerbitzuak-en arautegi teknikoa kontutan hartu beharko da.

### **Argitegia:**

Tolargi enpresa publikoaren arduradun teknikoak egindako txostenaren arabera, zirkuitu berriak orain berri eginiko aparkalekuaren koadroari lotuta egon beharko du, irteera berri bat emanaz dagozkion babesekin. Gainera, hazkunde hau Industri Delegaritzan legeztatu behar da.

### **Altzariak:**

Jartzen diren zakarrontziak gaika jasotzeko aukera eman beharko dute, Tolosan azken aktuazioetan jarri diren antzekoak. Kopurua eta kokagune udal teknikariek adostuko da obrak dirauen bitartean.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta interesatuei.

## **12.- Eskolapioetako sarbide haunditzeko obrak kontratazeko baldintza plegua onartzea.**

Ikusita “Eskolapioetako Sarbide Handitzeko” proiektuko obrak kontratazeko hasi den espedientea, eta Hirigintza Batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Espedientea onartzea “Eskolapioetako Sarbidea Handitzeko” proiektuan jasotako obrak kontratazeko.

Lizitazio-tipoa hau da: 272.366,38 euro (225.096,18 euro balio estimatua eta 47.270,20 euro BEZa, prozedura irekiaren bitartez.

**BIGARRENA.**- 272.366,38 €.ko (berrehun eta hirurogeita hamabi mila hirurohun eta hirurogeita sei euro eta hogeita hemezortzi zentimo) gastua baliatzea dagokion partidatik.

**HIRUGARRENA.**- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratazeko.

**LAUGARRENA.**- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzetilearen profilean.

Visto el expediente incoado para la contratación de las obras contenidas en el proyecto de “Ampliación del Acceso a Escolapios” y de conformidad con el dictamen de la Comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO.**- Aprobar el expediente de contratación de las obras contenidas en el proyecto de “Ampliación del Acceso a Escolapios”, cuyo tipo de licitación asciende a 272.366,38 euros (225.096,18 euros de valor estimado y 47.270,20 euros de IVA), por procedimiento abierto.

**SEGUNDO.**- Aprobar el gasto de 272.366,38 € (doscientos setenta y dos mil trescientos sesenta y seis euros y treinta y ocho céntimos) a cargo de la correspondiente partida presupuestaria.

**TERCERO.**- Aprobar el Pliego de Cláusulas administrativas particulares para la contratación de las mencionadas obras.

**CUARTO.**- Dar inicio al procedimiento de contratación, publicando la convocatoria correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el perfil del contratante.

## **13.- Andia elkarteari dirulaguntza emateko erabakia baliogabetzea.**

Tolosako Udal Gobernuak, kultur jardueretarako emandako diru laguntzen artean, Andia elkarteari 540 euro ematea erabaki zuen, urte osorako aurkeztu zuten egitarauaz egindako balorazio teknikoa kontuan hartuta.

Subentzio horretatik hiru laurden (405 euro) aurreratu zitzazkien, arautegiak bideratzen duen moduan, falta zen laurdena jarduera epea amaitzean aurkeztutako xahuketa aztertu ondoren ordaintzeko asmotan.

2016ko apirila iritsi da aipatutako xahuketa. Beronen arabera, urte osoko gastuak 307,08 eurokoak izan dira; sarrerak, berriz, 5.542 eurokoak. Beraz, elkarteak ez du 2015ean defizitik izan.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kultur Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Baliogabetzea 2015eko 966 Alkate Dekretua, Andia elkarteari 2015eko dirulaguntza emateko.

**BIGARRENA**.- 2015eko irailean aurreratu zitzaizen kopurua (405 €) Tolosako Udalarari itzultzeko eskaera prozedura martxan jartzea, elkarteak bete beharreko baldintzetako bat bete ez duelako: defizita izatea, alegia.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Andia Elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

### **14.- Bidaiaren Txokoa: lokalaren zesioa.**

Datorren ekainaren 3an beteko dira Tolosako Udalak Nairobiarra kultur elkarteari Errota izeneko eraikineko beheko aldeko lokala utzi ziola bere egitasmoa aurrera ateratzeko.

Lau urte hauetan elkarte honek erakutsi duena hau da:

- 1).- Antxon Bandres Zaragüeta zenaren bidaia liburu eta aldizkarien bildumarentzat biltoki eta zabalkunde nahiz mailegurako egoitza egokia dela.
- 2).- Elkarteak asmoari erantzuteko gaitasun eta trebetasuna duela bilduma antolatzeari eta bere lana zabaltzeari dagokionean.
- 3).- Bildumarentzako biltoki izateari jarduera osagarri oso interesgarriz osatutako egitaraua martxan jarri dutela (hitzaldi, liburu aurkezpen, ikastaroak...) eta beronek oso harrera ona izan duela tolosarren eta haragokoen artean.
- 4).- Espazioaren kudeaketan, mantentze eta gastuen administraziorako gaitasun bikaina.
- 5).- Tolosako udalak edo beste eragileren batek laguntza eskatu izan dienean, gogo onez eta modu oso eraginkorrean erantzun dutela.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Kultur batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Tolosako "Nairobiarra Kultur elkarteari" kontratu zesio berria egitea 4 urterako Errota izeneko eraikuntzan lokala uzteko.

**BIGARRENA**.- Kultura departamentuari helaraztea erabakia kontratua gauzatzeko.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesdunari.

#### **15.- Aranzadi elkartearekiko hitzarmena.**

lazko lan guztia entregatu gabe badago ere, proiekturen hasieran aurreikusitako hiru faseetatik bigarrena kontratatuko litzateke aurten. lazko prozedura berdina jarraituko litzatekeela aipatu da kultur batzordean eta proiektuaren atalak hauek dira:

- 1.- Liburu baten idazketa.
- 2.- Garai eta gai honen inguruko argazki bilduma digitalizatua osatzea.
- 3.- Ahozko testigantzen bilketa et bideo grabazioak (II).

Hitzarmenean azaltzen den bezala, aurrekontua 15.000 eurokoa dela aipatu dute. Proiektuaren dokumentuak oker azaldu arren, dirulaguntza eskatu diote Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari.

Gauzak horrela, eta Kultur batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Aipatutako lanak Aranzadi Elkarteari ematea.

**BIGARRENA.**- Onartzea hitzarmena eta 2016ko aurrekontua.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta Aranzadi elkarteari.

#### **16.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.**

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratu zen.

Udalbatzak, 2015eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, eta 2016ko ekitaldirako ondorioetarako, ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekargua mantentzea erabaki zen aipatutako zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerrako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Norma Foral 4/2012 de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG n.º 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 27 de octubre de 2015, y a efectos del ejercicio de 2016, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Espedientean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebizitzean erroldatuta.

Hala ere, errekgua ez aplikatzeko ondorengo egoera onartu zen:

*“Errekgua honen helburuen espirtu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Gobernu Batzordeak erabakiko du errekguaren salbuespena onartzea ala ez”.*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Errekgua **EZ** aplikatzea 1 eta 3 eranskinean agertzen diren zergadunei. Ez aplikatzearen arrazoiak hauek dira: espedientean idazkariak diligentziatuta jasotako zerrendan daudenak. 1. eranskinari dagokionez, egoera berezian daudelako, eta 3. eranskinean, berriz, gaur egun etxebizitza horiek hutsik ez daudelako.

**BIGARRENA.**- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko errekgua aplikatzea 2. eranskinean Idazkariak diligentziatuta agertzen diren zergadunei, zeren 2016ko urtarrilaren 1ean ez zirelako inoren ohizko etxebizitzak.

**HIRUGARRENA.**-Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal de habitantes que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Los contribuyentes que figuran en el expediente no están empadronados en dichas viviendas.

Aún y todo, se aprobó el siguiente supuesto de no aplicación del recargo: *“En los casos que estén de acuerdo con el espíritu y criterios de los objetivos de este recargo, la Comisión de Gobierno decidirá la admisión o no de la exención del recargo”.*

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ACUERDA

**PRIMERO.-NO** aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en los anexos 1 y 3 relación que, diligenciada por el Secretario, figura en el expediente. Los motivos para la nueva aplicación del recargo son los siguientes: en el caso del anexo 1, por considerar que concurren circunstancias especiales y, en el 3, porque a fecha de hoy dichas viviendas no están vacías.

**SEGUNDO.**- Aplicar el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto a los contribuyentes que figuran en el anexo 2, que diligenciado por el Secretario, constan en el expediente, ya que a fecha 1 de enero de 2016 dichas viviendas no eran viviendas habituales de persona alguna.

**TERCERO.**- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los/as interesados/as.

### **17.- Auditoriaren plegua.**

Betean Auditoria, S.L.P, enpresarekin sinatutako kontratua amaitu da 2014ko auditoria lanak burutu ondoren.

Kontratua 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietako auditoriak egiteko zen, eta luzagarria 2014 ekitalditakoa egiteko.

Berriro ere auditoria lanak kontratatu ahal izateko, udal zerbitzuek baldintza plegu berri bat eta espedientea osatu dute.

Beraz, Ogasun batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Auditoria lanak kontratatu ahal izateko espedientea eta plegu balditzak onartzea.

**BIGARRENA**.- Prozedura aurrera eramateko, deialdi publikoa egitea iragarkia Gipuzkoako Aldizkarian argitaratuz.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari.

### **18.- Bases para la confeccion de una bolsa de trabajo de peones del Ayuntamiento.**

Tolosako Udalak peoien lan poltsa bat sortzeko beharra kusi du, hainbat departamentuetan dituen beharrak betetzeko. Honela, kontuan hartuta oraingo peoien lan poltsa ia agorturik dagoela, lan poltsa berri bat eratzeko proposamena aurkeztu da.

Lan polts honen ezaugarriak brigadak egingo dituen lan guztietarako baliagarri izango da eta dauden beharren arabera erabili beharko da. Honela, honetarako oinarri batzuk prestatu dira, non konkurtso oposakea baten bidez izangaien gaitauna neurtuko da.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Giza Baliabideak egun duen proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Peoien lan poltsa arautzen duten oinarriak onartzea eta egunkarietan dagokion publizitatea argitaratzea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri emate Giza Baliabide departamentuari.

**19.-10/2016eta 11/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **10/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **136.006,16 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- **10/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **11/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **392.646,17 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- **11/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:30etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

